

2.4.1. Baliabideen antolaketa, hezkuntza-eskaintzaren eta ikastetxeko plangintzaren arabera egituratzea, ikasleei hezkuntza-erantzun hobea emateko.

Zuzendaritzak ondo definitu gabeko irizpiderik gabe kudeatzen eta administratzen ditu baliabideak. Kontratazioak egiten ditu, gastuak baimentzen ditu eta ordainketak egitea agintzen du sortzen diren beharren arabera, aldez aurreko plangintzarik gabe, edo izaera formala duen urteko kudeaketa-programa baten arabera.

Dokumentuen eta informazioaren kudeaketak funtzio burokratikoak du batez ere; ez du loturarik inplikazioa eta erabakiak hartzea bilatzen dituen sistemekin.

Zuzendaritzak urteko kudeaketa-programa diseinatzeko oinarrizko irizpideak eta helburuak zehaztu ditu.

Giza baliabideak esleitzean, lehentasunezkoa da talde/gela bakoitzari arreta ematea eta ikasleei banakako arreta eskaintzea.

Informazioaren, dokumentazioaren eta giza baliabideen kudeaketa erabiltzen da irakasleen lana errazteko, ikasteko eta irakasteko prozesuan duten inplikazioa hobetzeko, eta ikastetxearen funtzionamendu egokia bultzatzeko.

Zuzendaritzak koordinatzen du ikastetxearen aurrekontuaren prestaketa.

Ikastetxeko baliabideak kudeatzen eta administratzen ditu, eraginkortasuna eta efizientzia irizpide hartuta

Baliabideak esleitzeko irizpideak (pertsonalak zein ekonomiko eta finantzarioak) adostu ditu, eta ikastetxearen antolaketarako dokumenturen batean jasota daude.

Zuzendaritzak IUPren kudeaketa-planean helburuak, jarduerak eta gastuak ezartzen ditu, ikastetxearen beharren arabera. Horiek guztiak lerro estrategikoekin koherenteak izan behar du, ikastetxe bakoitzaren egoeraren eta aukeren arabera doituak, eta hezkuntza-komunitatearen gehiengoan eragin behar dute. Haien lorpen-maila ebaluatzen da, eta ematen araberako erabakiak hartzen dira.

Zuzendaritzak aldian behin ebaluatzen du ikastetxeko baliabideen erabileraren eraginkortasuna, eta dagozkion aldaketak proposatzen ditu.

Bistakoa da irakasleen antolaketa eta baliabideen kudeaketa hobetzeko hartutako neurriek ikastetxearen funtzionamendu hobea eragiten dutela, eta ikasle guztiei hezkuntza-erantzun hobea ematen zaiela.

Baliabide batzuk eskola-komunitateko edo inguruko erakundetako beste sektore batzuen beharrak asetzeko inbertitzen dira, ikasleei zerbitzu hobea emango dieten aliantzak sortzeko.

2.4.2. Aldez aurretik antolatutako alderdiak jorratzearen eta eguneroko kudeaketak eskatzen duen erantzunaren arteko orekari eustea.

Bi egoera hauetako bat ikusten da: Zuzendaritza hainbat gorabehera eta larrialdien mende dago, eta, bere jarduera gehiena horretarako xedatzen duenez, antolaketa-gaietarako ez du betarik izaten; edo, bestela, antolaketan soilik aritzen da, eta arazoak ditu eguneroko kudeaketari erantzuteko.

Zuzendaritzak oreka lortu du ikastetxearen plangintzari eta antolaketari ematen dion denbora eta ahaleginaren eta eguneroko gorabeheren kudeaketan inbertitzen duen lanaren artean.

Zuzendaritza-taldeko kideen lana antolatzen du, oreka hori bideratzeko.

Zuzendaritzak sistema eraginkorra jarri du abian, egunero sortzen den lana kudeatzeko. Eraginkortasun hori bideratzen duten jardun-protokoloak planifikatu dira. Kasu bakoitzean inplikaturako hezkuntza-komunitateko kide guztiak ezagutzen dituzte protokolo horiek.

Ikastetxeko pertsonak badakite beharren bat izanez gero zuzendaritzak entzun egingo duela eskaera hori, eta erantzun egokia emango diola.

Zuzendaritza-taldeak lagundu egiten dio zeregin horretan zuzendariari. Beste arduradun batzuk ere inplikaturatu daude (sailen buruak, zikloen koordinatzaileak, eta abar).

Egoera konplexuak kudeatzen trebetasun handia du.

Denborak kudeatzen eredu garria da zuzendaritza, eta eskura dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak erabiltzen ditu plangintzaren eta eguneroko kudeaketaren arteko orekari eusteko. Beste zuzendaritza batzuei aholkularitza ematen die, oreka hori lortzeko bidez.

Eskola-komunitateak balioesten ditu zuzendaritzak halako egoeren aurrean dituen jardunbide egokiak.